

MOZIO ARRUNTA, TXOMINENEA ETA HERRERAKO GERALEKUAK DIRELA-ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **MOZIO ARRUNTA** aurkezten du, ADIFek Txominenean eta Herreran dituen geralekuen egoera dela-eta, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legealdian kudeaketa desberdin asko egin ziren arren, ADIFek gure hirian dituen aldiriko instalazioetako batzuek berehalako konponketa edo berrikuntza behar dute, egun duten egoera txarra zuzentzeko.

Egia da gure hiriko aldiriko trenen azpiegitura guztietan inbertsioak eta hobekuntzak egin beharko liratekeela, baina, batez ere, deigarria da biren egoera.

Txominenea auzoan, lurpeko pasabidea puntu kritikotzat edo segurua ez den gunetzat hartzen da gaur egun, denbora luzea baitarama argirik gabe. Harrigarria da pasabide hori, berez segurtasuna eman behar diena aldiriko zerbitzuaren erabiltzaileei, segurua ez den pasabide izatea, argirik ez dagoelako. Arazo hori, gainera, erraz konpondu liteke, ADIFek diru gehiegi inbertitu behar izanik gabe.

Bestalde, garbiketa eta txukunketa kontu batzuk albo batera utzita, beharrezkoa da iragazketa eta ur pilaketa arazoak behin betiko konpontzea, horiek direla-eta pasabidea ibilgaitza eta arriskutsua da.

Herrerako geralekuak eta lurpeko pasabideak ere ADIFen presako esku-hartzea behar dute, egoera orokorra hobetzeko, behar bezala argiztatzeko eta erabat falta dituzten irisgarritasun baldintzak emateko (gaur egungo egoera diskriminatzailea da edo, kasurik onenetan, zailtasun handiak sortzen dizkie mugikortasun arazoak dituztenentzat).

Horiek horrela, EH Bildu udal taldeak honako mozio arrunta aurkezten du

MOZIO ARRUNTA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Espainiako Gobernuari eta ADIFI Txomineneako geralekuaren egoera hobetzeko: argiztapen egokia jartzea seguruagoa izan dadin eta, hala, puntu kritiko bat kentzen edo kritikotasun hori arintzen laguntzea eta, bestetik, une desberdinetan izaten dituen iragazketa eta ur pilaketa arazoak aztertzea eta behin betiko konpontzea.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Espainiako gobernuari eta ADIFI, Herrerako geralekuan eta lurpeko pasabidean beharrezko hobekuntzak egiteko eta, batez ere, pasabide hori guztiz irisgarri bihurtzeko; hala, diskriminazio egoerak saihestuko lirateke eta pasabidea irisgarria izango litzateke pertsona guztientzat.

Donostian, 2016ko urtarrilaren 7an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko bozeramailea